

# AIARALDEA *hemen*



ARRUGAETA JATETXEA:  
"Ikaragarria izan da jendearen erantzuna azken egun hauetan. Sinistu ezinik gaude oraindik" 8 or.

HEZKUNTZA GEHIGARRIA:  
**Haur Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako matrikulazioa**



**Egia eta prebentzioa, trenek harrapatutako biktimen senideen borroka**

## SOLAR TRES60

**ZEURE ENERJIA PROPIOA**



**EGUZKI-ENERJIA, FOTOVOLTAIKOA ETA EFIZIENTZIA ENERJETIKOA**

- Produktu onenekin egiten duqu lan
- Aurrekontuak 24 orduetan
- Azpikontratatorik gabe
- Muntaketa azkarra (2-4 aste)
- Egunqo dirulaquntzen kudeaketa



**AURREZTU %70EAN ZURE FAKTURA ELEKTRIKOA**



# erreportajea



Raul Fuentesek eta Gonzalo Faustmanek ma eta alaba galdu zituzten tren istripuetan [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

## “Gezurrak esatea izan zen Renfek eta Adifek egin zuten lehenengo gauza gure senideen heriotzen ostean”

Raul Fuentesek (Urduña) eta Gonzalo Faustmanek (Arrigorriaga) ama eta alaba galdu zituzten tren istripuetan Gardean eta Aretan. Orain borrokan ari dira egia argitu dadin eta ezbeharrak ekiditeko neurriak har ditzaten.



Testua **Aitor Aspuru Saez**  
Argazkiak **Aimar Gutierrez Bidarte**

Raul Fuentesen ama 2022ko abenduan hil zen Gardeako tren geltokian. Gonzalo Faustmanen alaba, aldiz, Aretakoan zendu zen, 2016ko irailean. Kasu bietan tren batek harrapatu zituen pasabidean eta bietan ere hainbat esperientzia errepikatzen dira. Hasteko, Renfe eta Adif (Administrador de Infraestructuras Ferroviarias) enpresa publikoek gezurrak zabaldu zituzten biktimei buruz. “Nire amaren kasuan, esan zuten taka-taka batekin zeharkatzen ari zela burdinbidea. Nire amak ez zuen erabiltzen horrelakorik. Gainera, bere adinari buruz ere gezurra esan zuten” salatzen du Fuentesek.

Faustmanek antzeko egoera bizi izan zuen: “Vocentoko egunkari batean irakurri nuen nire alaba aurikularrekin zihoala eta horregatik harrapatu zuela trenak. Hamar lekuko zeuden tren geltokian eta batek ere ez du hori adierazi. Galdetu nion kazetariari nondik atera zuen informazio hori eta erantzun zidan Renfe zela iturria”.

Hortaz, biek abiatutako borrokaren lehen helburua da jakitea benetan zer gertatu zen istripuetan. “Nire amaren kasuan, Ertzaintzari eskatu behar izan genion gertatutakoa iker zezan, benetan jazotakoa argitzeko”, aipatzen du Fuentesek. Faustmanek ere epaiketara jo behar izan zuen egiaren bila: “Nire alabaren kasuan Adifek orrialde

bakarreko txostena egin zuen: temperatura jasotzen zuen, denak ondo funtzionatu zuela esan zuten, eta zehazten zuten gauza bakarra zen lau euro balio izan zuela lokomotorra garbitzeak eta atzerapenak sortu zirela gorpua erretiratu arte”.

Sei urte eta erdi bete dira Faustmanek salaketa jarri zuenetik eta oraindik prozesua ez da bukatu.

Gezurrei eta euren galderen erantzun ezari gehitu behar zaio jarrera oztopatzailea ere erakutsi dutela Renfek eta Adifek. “Duela hilabete pare bat EFE Agentziarekin joan ginen Gardeako tren geltokira erreportaje bat grabatzera. Kazetariak baimena eskatu zien han grabatzeko eta heldu ginenean segurtasun langile bat zegoen gure zain, azpiegituran ez sartzeko”.

### Enpresek legea bete dezaten

Egoera latz horiek eta enpresen jarrerak galarazten dute dolua gainditzea, estatuak berak ezarritako legeak ez baitituzte betetzen. 2014ko uztailaren 19an onartutako errege dekretuaren arabera, Renfek eta Adifek biktimak lagundu beharko lituzkete psikologikoki, juridikoki eta ekonomikoki. Ordea, egiatan ez dute horrelakorik egiten.

“2014ko legea oinarri hartuta, eurak jarri beharko lirake biktimen senideekin harremanetan, baina ez dute egiten. Guk deitu behar izan diegu eta errege dekretuari buruz galdetuta, erantzun digute ez dakitela ezer horri buruz. 2023an egindako salaketa kanpainaren ondorioz Garraio Minis-



## erreportajea

terioak eta enpresek bi telefono jarri dituzte biktimen arretarako, baina deitu dugu eta ez dute ezer eskaintzen. Psikologo batek deitzen zaitu eta berak adierazten duen mezu bakarra da ez dakie-la ezer eta ez duela eskumenik babes psikologikoa, juridikoa edota ekonomikoa emateko. Enpresa handiak direnez, ez dute legea betetzen, baina inori ez zaio bururatzten enpresa pribatu txiki batek horrelakorik egitea”, azpimarratu dute biek.

**Bizitzak edo dirua**

Raul Fuentesen eta Gonzalo Faustmanen borrokek bi arazo jartzen dituzte mahai gainean. Alde batetik, esparru penalean oso zaila da ardurak zehaztea. “Prozeduraren aldetik, oso arraroa da norbaitek zerbait txarto egin izana, soilik geratzen zaigu bide zibila. Orduan, inork ez badu kale egin, zergatik gertatzen dira harrapaketak? Euren ustez, biktimaren errua da beti”, hausnartu du Fuentesek.

2010etik 2021era bitartean 94 lagun hil ziren tren pasabideetan Estatu espainiarrean, hortaz,

## Renfek esan zuen Raul Fuentesen ama taka taka bat erabiltzen ari zela trenak harrapatu zuenean, baina berak ziurtatu du hori ez dela egia

arazoa ez da txikia. “Harrigarria da dauden teknologia berrieekin, ezer ere ez zartzea dauden pasabide guztietan horrelako istripuak ekiditeko” aldarrikatu du Fuentesek. Gonzalo Faustmanek, bere aldetik, azaldu du segurtasun arduradunarekin bildu zela neurri berriak eskatzeko eta behin eta berriro esan ziola ezinezkoa zela.

Bientzat korapiloaren muina argia da: “Tren pasabide seguruak egiteko inbertsioak egin behar dira. Gaur egun diru guztia Abiadura Handiko Trenera bideratzen dute eta nahiago dute dirua horretan gastatu bizitzak salbatu baino. Izan ere, merkeagoa da epaiketa bat ordaintzea, galduta ere, behar diren inbertsioak egikaritu ordez”.

Ildo horretatik, Raul Fuentesek zein Gonzalo Faustmanek zorionekotzat jotzen dituzte euren buruak: “Guk bitarteko ekonomikoak, familia eta babes eta prestutasun psikologiko nahikoa ditugu horrelako prozesu bati aurre egiteko, baina jende askok ez du salaketarik jartzen. Bide honetan izan dugun laguntza

## Faustmanen alabaren harrapaketa azaltzeko, Renfek aipatu zuen aurikularrak eramaten zituela, baina istripuaren lekukoek ukatu dute hori

bakarra pertsona harrapatuen elkarteak izan da, inork gehiago ez du ezer egin, gehienez, hitz onak”.

**Helburua: hildako gehiago ez**

Renfe eta Adif enpresen isiltasunarekin behin eta berriro topo egiten badute ere, Raul Fuentes eta Gonzalo Faustmanen xedea oso argia da, Gobernuak eta enpresek neurriak har ditzaten, ekidin daitezkeen heriotza hauek gehiago ez gertatzeko. “Asko dago egiteke. Adibidez, tren geltokietatik igarotzean 120 kilometro orduko abiadura har dezakete trenak, baina Euskotrenen muga hori 40 kilometro ordukoa da. Ni ez naiz segurtasunean aditu, baina argi dago hobetzeko tarte dagoela”.

Raul Fuentesek uste du gizarteak, oro har, ez dakielako zer nolako arriskua dagoen, nahiz eta hildakoak ugariak diren. Horregatik, hain zuzen, eurei dagokie egoera aldatzeko ardura: “Erakundeek eta enpresek dena estali nahi dute. Ondorioz, guk bakarrik azaleratu dezakegu errealtate hau”.





# herriz herri

## Laudio

Bi urteko gela mantentzea lortu duten arren, balorazio "gazi-goza" egin dute Aretako Eskolako gurasoek, ez baitute ikastetxearen etorkizunaren inguruko inolako bermerik jaso. Ostiralean Eusko Legebiltzarrera eramango dute Euskal Eskola Publikoaren aldeko aldarria.

## Ikasturte honetan bi urteko gela mantentzea lortu duten arren, bermeak eskatzen jarraituko dute Aretako Eskolan



Manifestazio jendetsua egin zuten iragan ostiralean. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Astelehen gauean iragarri zuen Ander Añibarro Audioko alkateak ikasturte honetan Aretako Eskolako bi urteko gelazabalik jarraituko zuela ikasturte honetan ere. Gauzak horrela, zerbitzu publikorik gabegereatzeko arriskuan zeuden bi familiek seme-alabak Aretan matrikulatu ahalko dituzte aurten.

Gertakarien segida abiada bizian igaro da. Iragan astean, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko teknikari batek telefonoz jakinarazi zion Aretako Ikastetxeari, matrikulazio gutxi jasotzeagatik bi urteko haurren gela ixteko asmoa. Segituan jazo ziren lehenengo erreakzio eta erantzunak. Kaltetutako familiak, eskolako komunitatea, Aretako bizilagunak eta eskualdeko eragile sozial ugari Jokin Bildarratzek zuzen-

tzen duen sailaren erabakiaren kontramugitzen hasiziren, SOS Aretako Eskola plataformaren bidez.

Ostiralean -martxoak 24- mobilizazio jendetsua egin zuten Aretatik Audioko Herriko Plazaraino. Astelehenean, berriz, auzia Osoko Bilkurara eraman zuten Aretako Eskolako zuzendariak eta Guraso Elkarte-ko lehendakariak. Alderdi guztiek aho batez adierazi zioten babesa eskola komunitateari. Gau horretan bertan, sare sozialetan zabaldutako bideo batean, iragarri zuen Ander Añibarrok Hezkuntza Sailetik zerbitzu publikoa abian mantentzeko jazotako erabakia.

### Balorazio "gazi-goza"

Aretako Eskolako gurasoek Aiaraldea Komunikabideari adierazi diotenez, sare sozialen bidez jazo zuten Hezkuntza Sailaren erabakiaren berri: "Asteartean Audioko alkatea-

**“Pozik gaude bi matrikulak bermatuko direlako, baina ez digute adierazi datorren urtean zer gertatuko den bi urteko gelarekin, ezta eskolarekin ere ez”**

rekin bildu ginen arte ez genuen jakinarazpen ofizialik jaso”.

Kaltetutako gurasoek balorazio "gazi-goza" egin dute. "Pozik gaude bi matrikulak bermatuko direlako, baina ez digute adierazi datorren urtean zer gertatuko den bi urteko gelarekin, ezta eskolarekin ere ez. Ez dugu inolako bermerik", azaldu diote Aiaraldea Komunikabideari. Halaber, Aretako bizilagunek zein eskualdeko gainerako herritarrek erakutsitako elkertasuna asko estimatu dute: "Euskal Eskola Publikoaren defentsan ehunka lagun mobilizatu dira azken egunetan, oso esker-tuak gaude”.

### Bermeak aldarri

Hain zuzen ere, Hezkuntza Sailak eman ez dizkien bermeak aldarrikatzeko mobilizatzen jarraituko dutela iragarri dute Aretako Eskolako gurasoek. Aurreikusitako bezala, ostiral

honetan Gasteizko Legebiltzarreko Osoko Bilkuran izango dira. Elkarrekin-Podemos alderdiak gaiaren inguruan galdetuko dio Jokin Bildarratzi zuzenean, eta Aretako gurasoek prentsaurreko bat eskainiko dute gero.

"Asteleheneko Udaltzara eraman dako testu berdina eramango dugu Gasteizera", azaldu dute Aretako Eskolako gurasoek. Bide beretik, astelehenean mozioa babestu zuten alderdi politiko guztiei luzatuz, eskola komunitatearekin batera Gasteizera ikastetxearen etorkizuna aldarrikatzera joateko gonbita. Familiek herritarren presentzia eskatu dute Legebiltzarrean, eta Gasteizera joateko autobusak jarriko dituzte. Martxoaren 31n 7:30ean abiatuko dira Altamira Plazatik. Izena emateko aretakoeskola@gmail.com helbide elektronikora mezua bidali behar da.



## Laudio

# ETAk eraildako Jose Luis Vicente Canton eta Ciriaco Sanz Garcia laudioarrak omendu ditu Udalak

Testua  
Txabi Alvarado Bañares

Terrorismoaren biktimak omentzeko ekitaldia egin zuen martxoaren 24an Laudioko Udalak, iragan martxoaren 10an Terrorismoaren Biktimen Europako Eguna izan zela probestuta.

Plaka bat inauguratu zuten horretarako, ETAk eraildako Jose Luis Vicente Canton eta Ciriaco Sanz Garcia laudioarren izenekin. Herritar eta senide ugari hartu zuten parte ekitaldian. Ander Añibarro izan zen hitza hartzen lehena. Alkateak aitortza egin nahi izan zien "basakeriaren ondorio zuzenak pairatu eta pairatzen dituzten biktima guztiei". "Gaur horiek guztiak oroitu nahi ditugu, baina batez ere bizia galdu zutenak, erailak izan zirenak", adierazi zuen.

Añibarro nabarmendu zuen lan handia geratzen dela egiteke memoriaren esparruan. "Memoriaren bidez gure historia ezagutu dezakegu, honaino ekarri gaituzten gertakariak ulertu eta gizarte moduan nola hobetu dezakegun hausnartu".

Omendutako bi pertsonen bizitzetara ere egin zuten aipamena alkateak. Jose Luis Vicente Canton Maderas Reunidaseko langilea izan zen, baina lesio bat pairatu zuen, eta gestoria eta higiezinaren agentzia batean laguntzera pasa zen orduan. Ciriaco Sanz Garcia, aldiz, Burgoetik Laudioa etorritako guardia zibila zen. Biak alaba biak erail zituzten tiroz, 1978. eta 1979. urteetan, hurrenez hurren, eta ETAkaldarrikatu zituen bi ekintzak. "Ni ez nintzen jaio oraindik eta, duela gutxi arte, gertakari horiek erabat ezezagunak ziren niretzat", aitortu zuen gobernu buruak. "Kontatu didate-

nagatik, herriak ez zuen behar bezala jokatu. Zoritxarrez, beste herri batzuetan bezala, biktimen familiek bazterketa soziala pairatu zuten. Garai hartan, apaizak uko egin zion mezan anaitasunezko bakea emateari, gure bizilagunen jokabidea zela eta". Horregatik, "bizikidetza eta elkarrizketa" sustatu eta "historiatikikasi eta elkarrekin lan egiteko" deia luzatu zuen Añibarrok, "gizarte justuago eta baketsuago bat eraikitzeko".

## Senideen hitzak

Añibarroren ostean, Jose Luis Vicente Cantonen semeak hartu zuen hitza. Eskerrak eman zizkien udal ordezkari guztiei ekitaldia antolatzeagatik, eta 1978tik hona bizitakoak ekarri zituen gogora. Bere aitaren lagun gehienak "koldarrak" izan zirela salatu zuen, "gainontzeko herritarrek bezala". "Herria ixilik egon da eta ixilik jarraitzen du horrelako gaiei dago kienez, jendea ez delako modu zuzenean hitz egitera ausartzen", nabarmendu zuen senideak, eta gaineratu zuen bere aita "gizon ona" zela: "Urte luzez egon zen Laudio ongia egiten. Hainbat urtez arduratu zen kanpotik Laudioa zetorren jendea babesteaz. Kasu batzuetan lana lortu zuten. Migrante horietako asko kartoizko kutxa batekin iristen ziren laudioa, baina berak denbora gutxian lortzen zuen pertsona horiek udalerrin barruan sartuta egotea".

Ciriaco Sanz Garcian senideek ere jaso zuten ekitaldira bertaratzeko gonbita, baina uko egin zioten gerturatzeari, Añibarrok azaldu zuenez. "Hala ere, oso eskertuta daude gonbidapenagatik, eta ni neu joango naiz Burgosera omenezko plaka eurei eramatera".

## Amurrio

# Landazuri Etxean eguneko arretarako landa zentroa eraikitzeko obren esleipena abian



Eraikin berri bat jarriko dute etxearen alboan. Arzanegi Arkitektura

Testua  
Txabi Alvarado Bañares

Amurrioko Udalak lehiaketa publiko abiaturik Landazuri Etxea birgaitu eta arretarako landa zentroa eraikitzeko obrak esleitzeko. Lanek 12 hilabeteko iraupena izango dute, tokiko erakundearen aurreikuspenen arabera. Gauzak hala, dena ondo bidean, 2024ko udaberriko egongo litzateke azpiegitura prest.

Lehiaketa irabazten duen enpresak Landazuri Etxeko egitura finkatu, fatxadak birgaitu eta estalkia berri beharko ditu. Bertan kokatuko

dute etorkizunean etxebizitza komunitarioa, baina momentuz ez dituzte horretarako lanak abiatuko. Eguneko landa zentroa, aldiz, solairu bakarreko eraikin berri batean kokatuko dute, Landazuri Etxera atxikituta egongo dena. Espazio berriak 480,18 metro karratuko zabalera izango du, eta 25 erabilizaile sartu ahalko dira bertan, tokiko erakundeak zehaztu duenez.

1.220.088,27 euroko (BEZ gabe) eskaintza ekonomikoa egin du Udalak obrak burutzeko, eta Foru Aldundiak 576.318,08 euroko dirulaguntza emango dio proiektua finantza-

tzeko, Obra eta Zerbitzuen Foru planaren bitartez.

## 20 urte ia erabilerarik gabe

Modu horretan, herriz erabilgarri egongo da Landazuri Etxea, ia 20 urte hutsik igaro ostean. Rita Landazurik Udalarri dohaintzan eman zion azpiegitura, eta 2015. urtean ekin zioten Amurrioko talde politikoei azpiegituraren erabileraren inguruan eztabaidatzeari. 2012an eta 2013an, aldiz, Amurrioko Gazte Asanbladak eraikina okupatu zuen Gaztetxe bihurtzeko, baina berehala hustu zuten eta 9 gazte epaitu zituzten ekintza horregatik.

## Orozko

# Adiek bukatutzat eman du bere ibilbidea eta ez da udal hauteskundeetara aurkeztuko

Testua  
Txabi Alvarado Bañares

Adiek bukatutzat eman du bere ibilbidea eta ez da datorren maiatzaren 28ko udal hauteskundeetara aurkeztuko. Hala azaldu du talde independenteak Orozkoko auzoetan zehar banatu duen eskuorri baten bidez. Bertan, talde politikoko kideek azaldu dute "ziklo bat" bete dutela eta ez dela "erreleborik" iritsi. "Beti lan egin dugu umiltasunetik, zintotasunetik, gardentasunetik, eraginkortasunetik eta zuzentasunetik", nabar-

mentu dute oharrean, eta eskerrak eman diete proiektuaren 12 urteko ibilbidean parte hartu duten pertsona guztiei. Taldearen ibilbidearen balantzea ere plazaratu dute: "Adie 2010eko udan sortu zen eta talde sendoa eratzeko lortu genuen, gaitasunarekin eta gure herriaren alde lan egiteko gogo eta ilusio akorekin". Modu horretan lortu zuten 2011ko hauteskundeetan gailentzea, eta orduz geroztik Adiek gobernatu du Orozkoko Udala. Urte hauetan guztietan, bizilagunen parte hartzea sustatu dutela nabarmendu dute, "parte hartzerako tresna be-

rriak" eta "gauzakegiteko beste modu bat" abian jarrita. Horrez gain, 2011n Udalak 5 milioi euroko zorrazuela gogorazi dute, eta urtez urte saneatzea lortu dutela. Ildo beretik, proiektuaren independentzia ere jarri dute balioan: "Adiek talde independente moduan, ez du ideologia politiko zehatz bat jarraitu. Gure asmoa beti izan da kudeaketarako eta parte hartzerako alternatibak proposatzea Orozkoko herritarrei. Gure jardun eremua Udala izan da soilik, eta ez dugu gure herritik haragoko lotura edo baldintza-tzailerik izan".



# herriz herri

## Laudio

### Urduñako mendateko luiziak 2025etik aurrera konponduko dituztela adierazi du Arabako Foru Aldundiak

Testua  
**Jone Gartzia Gerra**

Carlos Ibarlucea sailburuak Arabako Foru Aldundiak Urduña-ko portuan egingo dituen konponketak azaldu zituen martxoaren 20ko Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren batzordean, Elkarrekin Arabaren galderei erantzuna emanaz.

Azkenaldian gero eta ugaria-koak dira desnibel zorrotza duen mendatean gertatzen diren lur-eta elur-jausien inguruko kezka, eta erabiltzaileak kexu dira, istripuen beldur direlako. Jausiak ne-  
guan gertatzen dira batez ere, ura harrietan sartzen delako eta izoztean apurto egiten dituelako.

Asteleheneko Batzar Nagusietan, Ibarlucea azaldu zuen 2025 eta 2027 urteen artean egingo dituela Foru Aldundiak errepidea egokitzeko lanak. Nolanahi ere, "lasaitasuna" eskatu zuen, udaberriaren ezpondak saneatzeko lanak egingo dituztelako. Gainera, Arabari dagokion errepide zatia egunero zaintzen dutela azaldu zuen, 14 kontrolatzailek egunero egiten baitituzte "ikuskapen eta zaintza lanak errepidean anomaliak detektatzeko". 2025ean lanak hasi bitartean, ezpondak auskultatuko dituztela azaldu zuen sailburuak, arroken egoera ezagutu eta arazoari zein aterabide emango dioten erabakitzeke. Horren arabera, metodo bat edo bestea baliatuko dute eta

lanek izango duten kostua kalkulatu ahaliko dute.

#### Arazoa ez omen da "hain larria"

Era berean, eta errepide zati horren erabiltzaileek salatzen dutenaren kontrara, diputatuak adierazi zuen lur-jausiak "isolatuak" direla. Azken 29 istripuetatik soilik lau izan omen dira luiziek eragindakoak eta 2021eko neguko kanpainan %0,01 eta %0,04 artean baino ez zuten itxi portua, diputatuaren esanetan. Elkarrekin Arabako, EH Bilduko eta PPko batzarkideek erabiltzaileen segurtasuna arriskuan dagoela adierazi zuten eta 2025a baino lehen arazoari irtenbidea emateko neurriak hartzea eskatu zioten Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailari.

### Urduñako hiltegi berriaren obrak hasi dira eta espero dute urtebetean amaitzea



Lanak hasi dira jadanik La Rondina industriagunean. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

Bedarbidek bultzatutako Belardi Haragi Eraldaketarako Zentroaren lanak hasi ziren martxoaren hasieran La Rondina industriagunean. Guztira, proiektuak 1.400.000 euroko kostua izango du, hau da, hasieran aurreikusitakoa baino nabarmen gehiago. "COVID-19ren krisialdiak eta inflazioak biderkatu dute kostua", azaldu du Mikel Cormenzanak.

Edonola ere, anbizio handiko ekimen horrek bere lehenengo urratsak egin ditu eta obrak abiatu dituzte jadanik. Zentroak gune anitzak izango ditu; hiltegia, haragi-zatitzeko eremua, haragi-eraltatzeko tokia eta baita sukaldatzeko ere. Horrez gain, ehiza haragi lantzeko eta haragiarekin lan egingo duten profesionalak trebatzeko ildoak ere eskainiko dituzte.

"Haragiaren sektoreak profesionalak behar ditu eta Belardin trebakuntza arautua emango dugu, etorkizuneko langile horiek prest egon daitezen", aurreratu dio Cormenzanak Aiaraldea Komunikabideari.

#### Diru iturriak

Bedarbidek bultzatutako egitasmoak babeszabala jasotzeko behar izan du aurrera egiteko. Horrela, etorkizuneko erabiltzaileen eta elkarrekin kideen, enpresen eta fundazioen eta Eusko Jaurlaritzaren eta Urduñako Udalaren laguntza ekonomikoa batu dute.

Funtzionamenduari dagokionez, Cormenzanak azaldu du lehen tasuna dela erabiltzaileak Bedarbide elkarteko kide egitea. Horrela egiten dutenek merkeago jasoko dute zerbitzua; eta bezero hutsak izango direnek, aldiz, garestiago.

Sustatzaileek, dena den, ez daiten zehazki zenbat langile izango dituen azpiegiturak eta hori lan zamaren arabera finkatuko dute.

Mikel Cormenzanak argi utzi nahi izan du, ordea, Belardi ez dela Laudion itxitako hiltegiaren ordezkia: "Laudiokoa animaliak hiltzeko baino ezzen, Belardi eraldaketan zentratuko da, ez bakarrik animaliak hiltzean".

#### Burujabetza helburu

Izan ere, Bedarbideko proiektua duela zortzi urte sortu zuten baserriarren egoerari buruz hausnartu ostean. Hau da, Laudion hiltegiaren itxiera baino askoz lehenago abiatu zen ekimena.

Hausnarketa horren ondorio nagusia izan zen baserriarren animaliak bazituztela, baina ez produktuak ekoizteko aukerarik.

Hori dela eta, bitartekarien esku geratzen dira abeltzainak; eta egoera iraultzeko, hain zuzen, garatu dute Belardi zentroa. "Burujabetasuna, jasagarritasuna eta tokikotasuna bultzatu nahi ditugu, abeltzainek eurek saltzeko produktuak bezeroei eskualdean bertan, kate handien menpekotasunik gabe", adierazi du Mikel Cormenzanak.

## Arrankudiaga-Zollo

### "Arrankudiaga-Zollon %70ak daki euskaraz, eta UEMAn sartzeak bultzada berria ekarri dezake"



UEMA eguna antolatuta zuten Arrankudiaga-Zollon igandean. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)

Testua  
**Izar Mendiguren Cosgaya**

Larunbatz geroztik UEMAn kide da Arrankudiaga-Zollo. Azpeitiko So-reasu antzokian egin zuten 100 udalerriren langa ospatzeko nazioekitaldia, eta bertan egon ziren Aiaraldeko ordezkariak ere. Izan ere, Arrankudia-

ga-Zollok UEMAn sartzea erabaki du, eta Orozkorekin batera bi udalerririk horiek dira eskualdeko ordezkariak bakarrak. UEMAn herri kide guztiak hartu zuten parte larunbateko ekitaldian, Azpeitian. Alabaina, Arrankudiaga-Zollok emandako urratsa ospatzeko festa eguna antolatzea erabaki zuten Arrankudiagan. 12:00etan dul-

tzaineroak ibili ziren herrigunea girotzen, eta 13:00etan izan zen ekitaldi nagusia. UEMAn kideek, Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak eta Txutxi Ariznabarreta herriko alkateak hartu zuten hitza. Ondoren, gizarte etxean bazkaria burutu zuten; eta kantaldiarekin eman zioten amaiera egunari.



## babestutako edukia



2024ko gure aurrekontuak

**Batu. Erabaki.  
Egin dezagun Araba.**

**araba álava**  
foru aldundia diputación foral



# elkarrizketa

**“Arrugaetak guretzat duen balio sentimentalak kalkulaezina da”**



## **TXARO, JUAN PEDRO ETA MERTXE**

ARRUGAETA GUARESTI FAMILIAKO KIDEAK DIRA. OROZKOKO ARRUGAETA JATETXEAREN GIDARITZAN EGON DIRA URTE LUZEZ. LEKUKOA HARTUKO DUEN NORBAITEN FALTAN, ITXI EGIN DUTE NEGOZIOA.



Testua eta argazkia  
**Aimar  
Gutierrez Bidarte**

### **Historia luzea du Orozkoko Arrugaeta jatetxeak, ezta?**

Gure aitona ireki zuen jatetxea, 1950. urtean. Handik gutxira gure gurasoek, Chefi Guarestik eta Clemente Arrugaetak, negozioaren gidaritzari heldu zioten, eta 70 urtez egon da zabalik.

Familia guztia bizi ginen jatetxe gainean. Neba-arreba guztiak hemen bertan jaio gara. Amak sukaldean egin zuen lan gu erdi-tu gintuen egunetan ere. Jatetxean hazi eta hezi izan gara gu. Etxean ez genuen etxeko-zapatilarik, egun guztia ematen genuelako jatetxean, hau izan da gure benetako etxea. Gure nortasunaren parte de Arrugaeta jatetxea, gare-naren parte.

Gurasoen lekukoa hartu genuen anai-arrebok. Beti egon gara jaetxean laguntzen, ikasketekin uztartzen genuen hemengo lana.

### **Urte hauetan guztietan asko aldatu da jatetxea?**

Garai batean bezeroak etortzen zirenean sukaldaraino sartzen ziren lapiko barruan zegoena ikustera. Bezeroen altzoan jartzen nintzen hauen plateretik jatera. Beste garai batzuk ziren.

Hasieran jantokia gaur egun taberna dagoen aldean zegoen. 1980ko hamarkadan espazioa handitu egin zen eta jantokia alboko eraikinera mugitu genuen. Eraikin berria eraikitzen ari zirela Orozkon egondako lehendabiziko txosna jarri zuten bertan.

Beti saiatu gara jatetxearen identitate klasikoa mantentzen. Herri txikia da hau, eta hona datozenak janari bertako janari tradizionala jatera datoz. Gastronomian bolada desberdinak daude: janari txinatarrak, japoniarrak... Baina gure sukaldaritzak tradizionalki hor jarraitzen du.

Edozein euskal etxeko sukaldean aurkitu daitekeena eskaini dugu hemen. Sukaldaritzak tradizionala da gurea, baina ez da inoiz modaz pasatzen. Indabak, hegala eta hegala ezinbestekoak dira gure kartan.

### **Herriko identitatea ere markatu du Arrugaetak.**

Elkartzeko aukera eskaintzen duen espazio orok bizia ematen dio inguruari. Arrugaetak bizia eman dio Orozkori. Orozkon bi jatetxe daude, Iza eta Arrugaeta. Herrira datorren jende gehiena jatera dator, eta jatetxe baten faltan litekeena da jende gutxiago etortzea. Hutsunea igarriko da.

### **Agur esateko ordua iritsi zaio orain jatetxeari.**

Hala da, bai. Ez dago gure lekukoa hartuko duen inor, pena handiz, baina, agur esan behar diogu Arrugaeta jatetxeari. Azken astea zoramena hutsa izan da, jendetza bertaratu da gu agurtzera. Bezero askoren bizitzetako une gogoangarri asko eta asko lau horma hauen artean gertatu dira: ezkontzak, ospakizunak... Ikaragarria izan da jendearen erantzuna azken egun hauetan. Sinistu ezinik gaudere oraindik. Zenbat jendetza etorri den, ikusgarria izan da. Bere garaian inguruko fabriketan lan egiten zuten eta emen bazkaltzen zuten langileak ere etorri dira urrutitik gu agurtzera. Iruñetik, Madriletik... leku askotatik etorri dira.

## **“Chefi Guarestik eta Clemente Arrugaetak heldu zioten negozioaren gidaritzari eta 70 urtez egon da zabalik”**

### **Arrugaetak zuen balio sentimentalaz kontziente zineten?**

Jatetxe honek guretzat duen balio sentimentala kalkulaezina da. Hori ukaezina da, eta beti izan dugu argi. Gure familiaren elkargunea izan da. Baina, egia da, agur esateko unea heldu denean eta inguruko maitasun kieniak jasotzen hasi garenean ohartu gara zeren garrantzitsua izan den jatetxea hemendik pasatu diren hainbeste bezero eta laguntzat ere. Emozionatu egiten gara bizitako guztia oroitzeko.

Azken astean jatetxea topera egon da, negar malokoak ateratzen zitzaizkigun hainbeste gauza ederrretan egon gara ikustean.

### **Zein da orain jatetxearen etorkizuna?**

Familiako inork ez du jarraituko, hori argi dago. Negozioak moduren batean edo bestean jarraituko duen? Hori guk ere ez dakigu. Kaletik dauden zurrumurrutxo guztiak gezurra dira (barreak). Gustatuko litzaziguke erreferentziatzeko espazio bat izaten jarraitzea herrian, baina hori ez dago gure esku. Bizitzak aurrera egin behar du.



## babestutako edukia

 [www.faktoria.eus](http://www.faktoria.eus)  
 [faktoria@aiaraldea.eus](mailto:faktoria@aiaraldea.eus)  
 688 647 942  
 Errotari kalea 4-8  
 Laudio (Araba)

# Apirila

# FAKTORIAN

02

## Apirilak 2, domeka 18.00

### BAKARRIZKETA: MAGMA MIA!

Haserre nago, sutan nago, irakiten nago... Presio gehiegi eta zulo guztiak itxita mantentzeko hezi naute. Sumendia lehertzeaz dago, Magma Mia! Sarrera: 5 € bazkideak / 6 € ez-bazkideak



11-14

## Apirilak 11-14 9:00-13:00

### UDABERRILEKUAK: ZIENTZIAZ UDABERRIARI KAIXO

Faktoria laborategi bihurtuko da! Gure mundua deskubritzeko beste modu bat. Zientzia deskubritu eta gozatzeko espazio askea. Gurekin jolastu nahi? Sarrera: 50 € bazkideak / 60 € ez-bazkideak



14

## Apirilak 14, barikua 19:00

### SOLASALDI MUSIKATUA: LAZTANA-LAZTANA

Laztana Laztana bakarlariek urte hasieran plazaratu du bere lehen single eta bideoak, eta garaile atera da Durangoko Abesti Feministen V. Lehiaketan. Karla Velarde bibolin jole amurriarra du bidelagun. Esku artean dituzten proiektuen inguruan mintzatuko dira Aiaraldea Komunikabidearekin, eta abesti batzuk ere joko dituzte zuzenean. Sarrera doakoa



15

## Apirilak 15, zapatua 20:00

### KONTZERTUA: PERU GALBETE

Peru etengabeko hazkuntza eta bilaketa prozesuan dagoen sortzailea da; musikaz haratago, performancea, irudia, dantza eta bestelako diziplinak lantzen ditu. Kontzertu honetan Beiratu diskoa aurkeztuko digu, bere azkenengo lana. Kontzertuan ahots-performancea, inprobisazioa eta Peruren unibertso sentikor partikularra ezagutzeko aukera izango digu, maitasunez josita dagoena. Sarrera: 5 € bazkideak / 6 € ez-bazkideak



16

## Apirilak 16, domeka 17:00

### HAURRENTZAKO IKUSKIZUNA: ANTXXO TA PANTXA: Gurekin konektatu

Gure bi lagunek kanpamendu batean hartuko dute parte eta bidean hainbat gatazka bideratu beharko dituzte. Errua, edoskitzea, intimitatea, teknologia berrien erabilera eta beste hainbat gai landuko dituzte Antxok eta Pantxak. Sarrera: 5 € bazkideak / 6 € ez-bazkideak



21

## Apirilak 21, barikua 19:00

### EKONOMATUAREN BERRIREKIERA JAIA

MUSIKA, EKOIZLEAK, DASTAKETAK ETA GIRO EDERRA. Zenbait hilabetetako pausaren ostean, indarberrituta dator Aiaraldean agroekologia sustatzeko asmoz jaiotako Ekonomatua proiektua. Denda fisiko berregituratua, ekonomatu kolaboratiboaren proposamena, erosketa kanal berrien aurkezpena... Ospatu dezagun tokikoak eta ekologikoak diren produktuen sustapenerako urrats sendo berri hau! Doako sarrera



22

## Apirilak 22, larunbata 17:00-20:00

### GAZTEENTZAKO EKINTZA (12 URTETIK AURRERA) NAUFRAGO KONKISTATZAILEEN GINKANA

Abentura zalea zara? Prestatuko ditugun probak aurre egiteko prest? Ez galdu aukera konkisen egiten diren probetan parte hartzeko Faktoriari antolatutako abentura-ginkana honetan, taldeka zein banaka. Besteak beste, honako hauek aurkituko dituzu: orientazio proba, oreka proba, jummar igoera, logika jolasak eta askoz gehiago! Sarrera: bazkideak doan / 3€ ez-bazkideak



23

## Apirilak 23, domeka 11:00-13:00

### 0-3 URTEKO HAURRENTZAKO JOLAS ESPAZIOA

0-3 urte bitarteko haurrentzako eta beraien familientzako gozatzeko espazio bat. Adin horretarako aproposa den espazio bat topatuko dute haurrek. Horretan trebatutako bidelagun batek gunea dinamizatuko du. Gainera, familiek zalantzak eta dituzten oztopoak partekatzeak aukera izango dute, bidelaguna bertan dutelarik. Sarrera: 6 € bazkideak / 7 € ez-bazkideak

Sarrera: 6 € bazkideak / 7 € ez-bazkideak

23

## Apirilak 23, domeka 16:30-18:30

### LUDOTEKA FAKTORIAN EUSKARAZ JOLASTEN

Haurrek euskaraz jolasteko eta bizitzeko espazio bat. Jolaserako espazio bat, sormenerako, gozatzeko eta beste haur euskaldunekin harremanak egiteko gunea. ESKULANAK, JOLASAK, GINKANAK... egingo ditugu. Sarrera: 3 € bazkideak / 4 € ez-bazkideak



### ...ETA MAIATZEAN

Maiatzak 5, barikua 17:30

### IPUINEN LABORATEGIA



Maiatzak 7, domeka 18:00

### BALBEA



## JARDUERA JARRIAK

ASTELEHENETAN, 17:30

DANTZA SORTZAILEAREN ATELIERRA HAURRENTZAT

MARTITZENETAN, 19:30

YOGA ESKOLA HELDUENTZAT

JARDUERA BERRIA!

MARTITZEN ETA EGUENETAN,

10:00-14:00 HAUR BESOETAKOEN TOPAGUNA GOIZAK FAKTORIAN GOXO

Faktoriako ateak irekiak dituzte familian etortzeko. Horretarako, gune goxo eta atsegin bat prestatuko dizuegu. Haurrek jolaserako aukerak izango dituzte eta familiek gune goxo bat haurrekin goxatu ahal izateko.

ORDUTEGIA ASKEA da, baina APUNTATU BEHARRA dago.

Familiek auto-kudeatuko dute espazioa; hau da, espazioaren eta materiala zaintzea apuntatzen diren helduen ardura izango da.

Prezioa: bazkideak doan / 3 € ez-bazkideak



EGUAZTENETAN, 19:30

BERTSO ESKOLA HELDUENTZAT

EGUENETAN 17:30

SUKALDARITZA ATELIERRA HAURRENTZAT

EGUENETAN 19:15

SUKALDARITZA ATELIERRA HELDUENTZAT

● HEZKUNTZA ● KULTURA ● GAZTE-GAZTEAK ● ELIKADURA

## FAKTORIAKO ORDUTEGIA

FAKTORIA ZABALIK

Astelehenetik barikua: 16:30- 20:30 Zapatuetan: 10:30-14:00





## Egitarau zabala prestatu dute Laudion

# Dolumin Barikua ospatzeko

Dolumin Barikua ospatuko dute ostiralean -martxoak 31- Laudion. Udalak eta herriko beste hainbat eragilek hainbat ekintza prestatu dituzte herriko azoka egunik garrantzitsuena janzteko. Laudionko Abeltzain Elkarateak antolatuta CXXX. Ganadu Azoka izango da eguneko ekintza nagusia. Abereek goizeko 9:30etik 14:30era hartuko dituzte Laudionko Lanbide Eskolako aparkalekua eta honen aldiriak. Bien bitartean, Herriko Plazan, Aldai Plazan eta Alberto Acero enparantzan dozenaka postuk osatuko dute euskal jaki eta artisautezko produktuen eta nekazaritzako makinariaren erakusketa.

Musika eta kale animazioa ere ez dira faltako. Goi-

zean Bidebietako trikitilariak girotuko dituzte Laudionko kaleak, eta arratsaldean Ekin Joleak taldeak hartuko du karririk alaitzeko lekukoa. Done Petri baselizan Santa Luzia abesbatzak kontzertua eskainiko du 20:00etan. Puro Relajo taldeak eta Oxabi errormeriak osatuko dute musika eskaintza. Alberto Acero enparantza ko eszenatokiari arituko dira bi musika taldeak, 20:00etatik 21:30era eta 23:00etatik aurrera hurrenez hurren.

Herri kirolak izango dira Dolumin Barikuko beste osagai nagusietako bat. Lauzaldi Elkarateak Dolumin barikuko XII. Herri kirol txapelketa antolatuko du 12:30ean Aldai Plazan. 17:00etatik aurrera,

aldiz, umeentzako herri kirolak prestatuko dituzte, gaztetxoena kere jarduera hauetara hurbiltzeko. 19:00etan idi-probak egingo dituzte udal probalekuan. Idi-probak jarraipena izango dute apirilaren 1ean eta apirilaren 3an, 21:00etan.

### Indaba jana Gure Aukeran

Ezker Abertzaleak Gure Aukera Kultur Elkarte-ko ateark zabalduko ditu azoka eguna probestuta.

12:00etatik aurrera taberna zabalik egongo da, eta 14:00etan indaba gorriak eskainiko dituzte. Jai-giroa arratsaldean zehar luzatuko dute musika jar-tzaile desberdinek.

## MUSIKA

**03.31 Ostirala**  
20:00 LAUDIO  
SANTA LUZIA  
ABESBATAZAREN DOLUMIN  
BARIKUKO KONTZERTUA  
Done Petri Parrokia

**03.31 Ostirala**  
20:00 LAUDIO  
AKAINAK, REPRESIÓN ETA  
TERNURA  
Orbeo Etxea

**03.31 Ostirala**  
20:00 AMURRIO  
ANONYME POPULAR  
Amurrio Antzokia

**03.31 Ostirala**  
20:00 LAUDIO  
PURO RELAJO ETA OXABI  
ERROMERIA  
Alberto Acero enparantza

**04.01 Larumbata**  
19:00 AMURRIO  
EMBRIONES FEST METAL  
JAIALDIA  
Mileth, Baikal, Enfermo,  
Sadra eta Mundo Rata  
Burbio

**04.01 Larumbata**  
21:00 URDUÑA  
GUDA DANTZA, LIHER ETA  
LEHIAN ERROMERIA  
Urduñako XXII. Gazte Eguna  
Foru Plaza

**04.07 Ostirala**  
19:00 LAUDIO  
SEMPRE PEGGIO. STIG LITZ  
ETA LOS VIBRADORES  
Orbeo Etxea

**04.15 Larumbata**  
20:00 LAUDIO  
PERU GALBETE  
Faktoria

## KIROL JARDUERAK

**04.01 Larumbata**  
10:00 AMURRIO  
AIARALDEKO KIROL  
TOPAKETA  
Artzikirola landuko dute  
Artziniégako Antzokia

**04.01 Larumbata**  
18:30 LAUDIO  
CD LAUDIO - SAN  
PRUDENCIO KE  
Arabako Ohorezko  
Futbol Liga  
Ellakuri

**04.01 Larumbata**  
10:00 URDUÑA

## HITZALDIAK

**03.30 Osteguna**  
17:30 URDUÑA  
FAMILIAN SEXUAZ HITZ  
EGITEN: NOIZ, ZER ETA  
NOLA  
Angela Magazen hitzaldia,  
Urduñako Guraso Elkarateak  
antolatuta  
Alondegia

**03.30 Osteguna**  
18:30 LAUDIO  
JESURIKO PROIEKTU  
EOLIKOA ETA TRANTSIZIO  
ENERGETIKOA  
Kultur Etxea

**04.01 Larumbata**  
19:00 ARTZINIÉGA  
UZTARRIEI BURUZKO  
HITZALDIA  
Juan de Amestiren eskutik  
Artziniégako Museoa

**04.16 Larumbata**  
11:00 AMURRIO  
LEKAMAÑAKO  
LUBAKIETARA BISITA  
GIDATUA  
Gure Esku Dagok antolatuta  
Juan Urrutia Plaza

## IKUSKIZUNAK

**04.02 Igandea**  
18:00 LAUDIO  
'MAGMA MIA'  
Beatriz Egizabal  
umoregilearen bakarrizketa  
Faktoria

**04.15 Larumbata**  
20:00 AMURRIO  
BÜHO  
Diego Lorca eta Pako  
Merinoren eskutik  
Amurrio Antzokia

## BESTELAKO JARDUERAK

**03.30 Osteguna**  
12:00 ARAKALDO  
HONDAKIN BILKETA  
SISTEMAREN ALDAKETA  
Inaugurazio ekitaldia  
Herriko plaza

**03.31 Ostirala**  
09:30 LAUDIO  
DOLUMIN BARIKUKO CXXX.  
GANADU AZOKA  
Aldai Plaza

**04.01 Larumbata**  
12:00 URDUÑA  
URDUÑAKO XXII. GAZTE  
EGUNA  
Jolasak, poteoa eta  
herri bazkaria




## Aurrera doa Arabako bola txapelketa



Arabako XLVIII. Bola Txapelketa abiatu zuten iragan martxoaren 11n eta 12an, Ke- xaako eta Beotegiko bolatokitian eginda- ko jaurtiketekin. Guztira 53 kirolari elkar- tu ziren txapelketaren hasieran, gizon eta emakumezkoen kategorietan. Apirillean segida izango du txapelketa: apirilaren 1ean Urduñan, apirilaren 2an Tertangan, apirilaren 15ean Luiaiondon eta apirilaren 16an Lendoño-beitin.

## Urduñako Gazte Eguna ospatuko dute datorren apirilaren 1ean, hiru urteren ostean



Urduñako 22. Gazte Eguna ospatuko dute datorren larunbatean -apirilak 1-. Hiru urteko etenaldiaren ostean, Ur- duñako Gazte Asanbladak urteko mu- garri garrantzitsuenetako bat bilakatu den ekintza antolatzeari ekin dio berriz.

*Herria ardatz aurrera goaz!* hiriko gaz- teen topagune izango den egitaraua prestatu dute. 12:00etan haurrentzako jolasak egingo dituzte Foru Plazan, eta 13:30etan emango diote hasiera ofiziala

egunari, harrera ekitaldiarekin. Poteo girotuak Urduñako kaleak alaitu ostean herri bazkaria egingo dute 15:00etan. Bazkarirako txartelak salgai daude ho- nezkeru Mugalde tabernan, 8 euroko prezioan. Bazkalostean Sabin Guares- ti aiarrarrak kontzertu akustikoa eskai- niko du. Kontzertu nagusiak 21:00etan egingo dituzte: Guda Dantza, Liher eta Lehian erromeria arituko dira Foru Pla- zako oholtzan.

## Kartelera



LA MILAGROSA IKASTETXEA

**Irati**  
APIRILAK 1  
Larunbata (3 euro)

19:00



AMURRIO ANTZOKIA

**Los Fabelman**

APIRILAK 2, 3  
IGANDEA ETA ASTELEHENA  
(5 / 3,75 euro)

19:00



LA MILAGROSA IKASTETXEA

**El triángulo de la tristeza**

APIRILAK 8  
LARUNBATA (3 euro)

19:00



AMURRIO ANTZOKIA

**The Quiet Girl**

APIRILAK 16, 17  
IGANDEA ETA ASTELEHENA  
(5 / 3,75 euro)

19:00

Foru Plaza

18:00 URDUJUNA  
ARABAKO XLVIII BOLA TXAPELKETA  
Bolatokia

04.02 **Igandea**  
11:00 AMURRIO  
ARABAKO XLVIII BOLA TXAPELKETA  
Tertangako bolatokia

04.15 **Larunbata**  
18:00 AIARA  
ARABAKO XLVIII BOLA TXAPELKETA  
Luiaiondoko bolatokia

04.16 **Igandea**  
18:00 URDUJUNA  
ARABAKO XLVIII BOLA TXAPELKETA  
Lendoñobeitiko bolatokia

INFO +  
aiaraldea.eus

## Aiaraldeko gertaerak mugikorrean jaso nahi?

# HARPIDETU GURE KANALETARA!



Jaso Whatsappean eguneko edukiak, **688 848 152** zenbakira AIARALDEA GAUR mezua bidalita!



Batu Telegramera **t.me/aiaraldea** esteka bidez!



INFO+ [www.aiaraldea.eus](http://www.aiaraldea.eus)





# elkarrizketa



## “Urban Dance estiloko txapelketak oso gogorrak dira eta Motion Urban Dancek familiarragoa eta inklusiboagoa izan nahi du”

**SAIOA URKIJO** (Laudio), **IRAIA GOMEZ** (Laudio) ETA **NAHIA GUTIERREZ** (Ugao) MOTION URBAN DANCE DANTZA LEHIAKETAREN ANTOLATZAILEAK DIRA ETA APIRILEAN GETXON EGINGO DUTE EDIZIO BERRIA. EGITASMOAREN INGURUAN MINTZATU DIRA AIRALDEA KOMUNIKABIDEAREKIN.



Testua  
**Aitor Aspuru Saez**

**Motion Urban Dance lehiaketaren hirugarren edizioa egingo duzue, nolakoa izan da egitasmoaren bilakera?**

*Saioa Urkijo:* Iraiak eta biok dantza klaseak hartzen genituen, lehenik eta behin Nuria y Raquel akademian eta gero Laudio Wellnesen. Dantza urbano klaseak jaso genituen, hobetzen joan ginen eta zenbait lehiaketatan parte hartu genuen sei urtez.

Gero, LEINN ikasketak hasi genituen eta horretan sustatzen dute proiektuetan gure zaletasunak eta ekin-tzailletza uztartzea.

Ondorioz, lehenengo urtean pentsatu genuen dantza-rekin egitasmo bat sortzea. Hor saiatu ginen gure lehenengo txapelketa sortzen, baina pikutara joan zen pandemiaren ondorioz.

*Iraia Gomez:* Lehen asmoa zen presentziala izatea, baina pandemiaren eraginez on-line izan zen lehen edizioa. Nahiko ondo joan zen eta 1.700 ikusle izan genituen. Gero, pandemia amaitzean, presentzialaren alde egin genuen apustu eta Casilla kiroldegian antolatu genuen.

**Nolakoa izan zen lehen edizio presentziala?**

*Nahia Gutierrez:* Zailagoa izan zen, jende ugari hartu behar zuen lokalak, dantzarako zoru ona izan... Mugitu ginen, Bilbon egin nahi genuelako. Leku publiko bat hautatu genuen, laguntza publikoa ere izateko. Bilboko Udalak babestu gintuen eta alokairua erdian utzi zigun.

Gero, Saioak eta Iraiak duten harreman sareari esker, hainbat akademiarekin hitz egin genuen. Handicap handia izan genuen, Seulen baikeunden, Hego Korean. Telefonoz antolatu genuen, sei orduko desberdintasunarekin. Lehiaketa izan baino egun gutxi lehenago

heldu ginen. Prozesu zaila izan zen, baina asko ikasi genuen. Akatsak ere egin genituen eta konpontzen saiatu gara.

*I. G.:* Erokeria izan zen, dei guztiak ezin genituen Koreatik egin-eta. Laguntza eskatu behar izan genuen. Ardurak banatu genituen: lokala, alde legala...

*S. U.:* On-line esperientzia ez dugu aipatzen maiz, oso bestelako bizipena izan baitzen. Ez du zerikusirik; burokraziaren aldetik, gehienbat.

*N. G.:* Publikoa ere kudeatu behar da.

**Epaimahia nork osatu zuen?**

*S. U.:* Bi dantzari profesionalak egin zuten. Bilbokoak biak, Emilio Otxoa eta David Alvarez, popping dantzariak, hemen oso ezagunak dira eta Eraiki Project-en parte hartzen dute, esaterako. Aurten kalitatea handitzeko apustua egin dugu, bai sarien zein epamahiaren aldetik. Epaimahaiak nazioarteko esperientzia handiagoa



## elkarrizketa

dauka. Epaila bat Lohitzune Rodriguez da eta bestea Luca Rozzoni. Lohitzunek hemen egin zituen lehen urratsak, Bilboko txapelketetan. Gero 'Fama, a bailar!' saioan sartu zen eta azken edizioan parte hartu du. Ondoren, Dua Lipa, Lola Indigo edo Operacion Triunfo artistekin egin du lan, adibidez. Akademia inportanteetan ere eman ditu klaseak. Koreografo ospetsua da Bilbon.

Luca, bere aldetik, ezaguna da, gehienbat, The Worthy taldearen koreografoa zelako. Sari garrantzitsuak eskuratu ditu Espainiako estatuan; Urban Display, esaterako, edo Switch On. Diana Matos bezalako dantzariekin ere egin du lan. Orain Valentziako eskola batean dabil klaseak ematen eta dantzari bakarlari moduan txapeldun izan da hainbat urtez. Gainera, trebatzen jarraitzen duen pertsona da. Horregatik hautatu ditugu.

**Noiz da lehiaketa eta zer espero duzue?**

I. G.: Aurten apirilaren 16an izango da Getxoko Muxikebarri Ereaga aretoa. Iaz 400 lagunengatik parte hartzea izan genuen, dantzariak eta publikoa aintzat hartuta. Aurten 600 parte hartzaile espero ditugu. 22 talde eta publikoa.

**Motion Urban Dance, berez, zer da, ez dakienarentzat?**

I. G.: Urban Dance diziplina gogoko dutenentzako mugimendua da, ekintzak sustatzeko horri lotuta: txapelketak, master classak... Guk sumatu dugu giro honek lehiaketak oso gogorak direla eta hitzordu familiaragoa sustatu nahi dugu.

S. U.: Dantza urbanoaren jatorria Hip Hopa da, eta ez da bakarrik musika, bizitza eredu eta balio batzuk baditu. Ez da bakarrik txapelketa ospetsua antolatzea, Urban Dance komunitatean Hip Hoparen balioak partekatzeke beste eredu bat garatu nahi dugu. Guztiok elkarrekin egotea, musika entzutea, dantzatzea, inor ez baztertzea, inklusiboak izatea... Hori da gure erronka. Hori guztia antolatzea dantzatu nahi duenarentzat.

## “Aurtengo edizioa apirilaren 16an egingo dugu Getxoko Muxikebarri Ereaga aretoan”

**Zein izan da zuen esperientzia Urban Dance estilorekin?**

I. G.: Balleta egiten hasi ginen eta horrek oinarria eman zigun gero nahi genuena egiteko. Laudio Wellnessen oso talde ona zegoen eta hortik sortu da Motion Urban Dance antolatzeko gogoia.

S. U.: Iraia eta bion asmoa ez zen dantzari onenak izatea, baina oso ondo pasatzen genuen klasean eta txapelketetan. Hori zabaldu nahi genuen, lehiatzea, gozatzea, jende profesionala ere egotea... baina edonork bere tokia izatea. Orain ezin dugu dantzatu, ez dugulako denborarik, baina hau egin dezakegu gure zaletasuna bultzatzeko. Hortik dator dena.

N. G.: Nik ez dut inoiz parte hartu txapelketa batean, ikuslea naiz eta eurekin hitz eginda piztu zait honen parte izateko gogoia. Asko gozatu dut antolatzen eta ikusten. Ikuskizun bikaina da.

**Egunean bertan zein da giroa?**

I. G.: Eromena. Gu saiatzen gara dena antolatzen, gutxi gorabehera. Aurkezle lanak egiten ditugu eta jende guztia kokatuta dugu. Edonola ere, erokeria da talde guztiak mugiaraztea, baita oso dibertigarria ere. Publikoaren harrera oso ona izan da.

S. U.: Publikoaren aldetik jaso duguna izan da, gutxi gorabehera, bilatzen genuena. Topaketa familiarra izan zen eta jende ugari elkar ezagutzen zuen, denboraldiaren erdian baikaude eta beste txapelketa batzuetan lehiatu baitira. Antolatzailoek apur bat gozatzen eta sufritzen dugu eta ikusleek eta dantzariak ondo pasatzen dute eta saiatzen dira saria eskuratzen.

N. G.: Jende nagusia zein umeak aritzen dira eta saiatzen gara dena aurreikusten eta arazoren bat agertuz gero, unean bertan konpontzen. Goizean umeak eta nerabeak lehiatzen dira eta arratsaldean helduak. Egitura horrek laguntzen digu denborak hobeto kudeatzen. Izan ere, iaz aldi berean egin genuen dena eta zailagoa izan zen. Erokeria izango da, baina kanpora begira espero dugu dena bikain joatea.





# kultura

## Raisa Alavak egin du Baigorriko 'Nafarroaren Eguna' kartela



Nafarroaren Eguneko kartela. Raisa Alava

Testua  
Izar Mendiguren Cosgaya

Milaka euskaltzale batzen ditu Nafarroaren Eguna Baigorri. Iparraldean urteak daramatate festa egun nazionala antolatzen, apirilko azken igandean. Aurten, apirilaren 30ean izango da eta, zeharka bada ere, izango du Aiaraldearekin loturarik. Izan ere, Raisa Alava zuhartzarrak osatu du ekimenaren kartela.

"Asko gozatu nuen kartela eginen. Eurentzat oso jai garran-

tzitsua da, eta izugarritzko lana egiten dute. Euren pertsonaiak bilatu nituen. Iruditegi oso zabala dutela iruditzen zait: zantantzarrak, dantzariak... eta udaberriaren egiten denez festa, kolore asko sartzea erabaki nuen".

Aurtengo Frantziako Tourraren kartelaren egilea ere bada Alava. 2022ko udazkenean zabaldu zuten zuhartzarraren lana, eta oihartzun handia izan zuen tokiko zein nazioarteko hedabideetan.

## Saria eskuratu du Karla Velarde amurriarrak Laztana Laztana taldearekin Durangoko Abesti Feministen V. Lehiaketan

Testua  
Txabi Alvarado Bañares

Saria eskuratu du Laztana Laztana taldeak Durangoko Abesti Feministen V. Lehiaketan. Sandra Vargas bakarlarik barakaldoarrak sortu du proiektua, baina beste bi musikari ditu bidelagun: Jorge Larracochea mexikarra eta Karla Velarde Castro amurriarra. Biolina jotzen du Velardek, eta unibertsitatean egin zen Vargasen lagun. "Biek ikasi dugu musika klasikoa eta ikusi genuen nahi-

ko feeling musikal handia genuela eta ondo elkar ulertzen geundela zentzu horretan", azaldu du Aiaraldeko musikariak, "une horretan Sandrak bazuen beste proiektu informalego bat, baina gero serioago hartzen hasi zen". Orduan egin zuen salto bakarlarik hirukote formatura, Laztana Laztana izen artistikoarekin. Iragan udan eman zuten lehen urrats sendoa: estudioan sartu ziren hainbat abesti grabatzerak, eta otsailean argitaratu zuten lehena, *Sua* izenekoa.

## Espazio berri bat irekiko du Laudioko Kulturzaleak elkarteak, "sorkuntzareko eta topaketarako"



Elizalde kaleko 50 metro karratuko lokala irekiko dute. Kulturzaleak

Testua  
Txabi Alvarado Bañares

Lokala bat irekiko dute Laudioko Kulturzaleak elkarteko kideek Laudioko Elizalde kalean, Kulturlab 03 ekimena gauzatzeko. Zehazki, lehen Garaio burdindegia zegoen 50 metro karratuko lokala hartuko dute, "sorkuntzarako eta topaketarako" espazio bilakatzeko eta "Laudion eta Laudiotik gogoeta egiteko, ikasteko, azaltzeko eta pertsona eta ideia sortzaileak elkartzeko". Azaldu dutenez, "sorkuntza garaikidea" sustatuko dute bertan, "Lamuza parkean Kultura Sortzaileen Parkea gauzatze bidean".

Ostiral honetan egingo dute espazioaren "irekiera sinbolikoa", 19:00etan, Dolumin Barikuko jai probestuta. Oroitu dutenez, Dolumin Barikuko data garrantzitsua da Lamuza Parkea berreskuratzearen alde sortutako mugimenduarentzat, egun horretan egin baitzen mugimendu horren "mobilizazio garrantzitsuenetako bat".

Kulturlabeko kideen iritziz, "ezinbestekoa" bilakatu da "espazio egonkor bat izatea", proiektuaren "gutxieneko funtzionamendua eta kalitatea" bermatzeko. "Une honetan ibilbide hori ahalbidetzen duten udal lokalak lortzea ezinezkoa denez, aldi baterako lokala bat alokatzea erabaki dugu", azaldu dute, eta aurreikusitako dute bertan egongo direla Kultur Etxeko obrak amaitu arte.

## Ostiralean egingo dute lokalaren irekiera sinbolikoa, Dolumin Barikuko jai giroa probestuta

Obrak

Bi orduz mantenduko dute lokala irekita ostiralean, 19:00etatik 21:00etara, eta Inside Out nazioarteko ekimen artistikorako eginiko erretratuak jarriko dituzte ikusgai. Ondoren, obretan murgilduko dira, espazioa atontzeko, baina ez dute asko eraldatuko: "Helburua espazioan ahalik eta gutxieneko esku hartzea da, Laudion oraindik bizirik dirauten lokal historiko bakanetako baten funtsari eusteko. Gainera, espazio ireki eta gardena izatea nahi dugu, landu beharreko jardueren arabera taxutu ahal izango dena".

Horrez gain, erretratuak etxe-

ra eramateko aukera emango diete Inside Out ekimenean parte hartu zuten audioarrei. "Aste batzuen buruan, eta obrei ekin aurretik, lokala berriro irekiko dugu, hiru arratsalde, nahi duten guztiak beren erretratuak kartoi mehez jasotzeko aukera izan dezaten, DIN A4 tamainan, eta etxera eraman, proiektuan parte hartzeagatik eskerrak emateko. Argazkiak zein egun eta ordutan jaso ahal izango diren jakinaraziko dugu aurrerago".

Behin lokala atonduta ekingo diote bertan jarduerak kulturala sustatzeari, Lamuza parkean 2021ean jarritako itsas-erakundearen garatutako dinamizazio jarduerak jarraiki. "Helburu horrekin, jardunaldiak, bilerak, erakusketak, bidaiak eta ekitaldiak antolatuko ditugu, baita mahai baten inguruko topaketak ere, 2021ean sortutako olandar proiektuaren hasierako proiektua gehiago definitzeko".

Kulturzaleak elkarteko kideek nabarmendu dute herriko talde kultural eta sozialekin elkarlanean garatuko dutela proiektua, eta espazioa irekita egongo dela helburuekin bat egiten duten norbanako eta kolektibo guztientzat. "Espero dugu espazio egonkor eta iraunkor bat izateak aukera emango duela Laudioko sorkuntza garaikidearekin lotutako loturak eta proiektuak indartzeko eta Lamuzako Sormen Kulturaren Parkearen amets horretan urrats berri bat emateko".





2023KO

 KO  
 KO-  
 RI  
 KO
FAK  
TO-  
RIA

# UDAKO ESKAINITZA

## Naturaz eta euskaraz blai

### • TXANDAK

1. Ekainaren 26tik 30era
2. Uztailaren 3tik 7ra
3. Uztailaren 10tik 14ra
4. Uztailaren 17tik 21ra
5. Uztailaren 24tik 28ra
6. Uztailaren 31tik abuztuaren 4ra
7. Abuztuaren 7tik 11ra
8. Irailaren 4tik 8ra

### • TOKIA

FAKTORIAN jaso eta itzuliko ditugu haurrak. Udalekoa inguruko baso eta naturguneetan garatuko ditugu.

### • ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera: 9:00-13:30

### • ADINA

2013-2020 urte bitartean jaiotako haurrak

### • PREZIOAK

#### • ASTE BAT:

Bazkideak 65 € // Ez bazkideak 75 €

#### • NAHI DITUZUEN BI ASTE:

Bazkideak 110 € // Ez bazkideak 130 €

#### • NAHI DITUZUEN 4 ASTE:

Bazkideak 200 € // Ez bazkideak 240 €

## JANTOKI zerbitzua



Zuen haurra 16:00ak arte jasotzeko aukera izango duzue

- TOKIKO PRODUKTU eta PRODUKTU EKOLOGIKOekin eginiko bazkariak
- NON? Faktorian

#### • ASTE BAKOITZEKO PREZIOA:

BAZKIDEEK 45€ - EZ BAZKIDEEK 55€

#### • EGUN BAT APUNTATU NAHI IZANEZ GERO:

EGUNA BAZKIDEEK: 12€ - EZ BAZKIDEEK: 15€

## IZENEMATEA

#### • INTERNET BIDEZ:

[www.labur.eus/faktoriaudalekuak2023](http://www.labur.eus/faktoriaudalekuak2023)

#### • TELEFONOZ:

693 85 53 12 (Aritz)

9:00etatik 13:00etara et

17:00etatik 20:00etara

#### • QR KODEAREN BITARTEZ





# kirola

DUATLOIA

## Besaide Astobiza podiumera igo da Oñatiko Duatloiaren XXX. edizioan



Besaide Astobiza helmugara iritsi zen unean. Goiena

Testua  
**Izar Mendiguren Cosgaya**

Hirugarren postua erdietsi zuen Besaide Astobizak larunbatean Oñatiko Duatloiaren XXX. edizioan, emakumezkoen kategorian. Kirolari orozkorrak 2 ordu 22 minutu eta 21 segundotan osatu zuen ibilbidea, lehenengo emakumea baino 10 minutu beranduago iritsita metara. Ez zen erronka maka-

la izan Oñatikoa, kirolariek hartzari, euriari eta haizeari egin behar izan baitzioten aurre. 10 kilometro egin zituzten korrika lehenbizi, beste 38 bizikletan gero, eta beste 5 kilometro korrika metaraino.

Garaipen ugari lortu ditu Astobizak azken urteetan, atletismoan batez ere. Euskadiko Kros Txapelketako podiumera igo zen, eta pistan ere lorpenak erditesitu ditu.

FUTBOLA

## CD Laudiok 3-0 galdu zuen Alavesen aurka, 16 jardunaldietako bolada ona hautsiz

Testua  
**Aimar Gutierrez Bidarte**

CD Laudiok ez du lortu azken hilabeteetako bolada onari eustea, eta 3-0 galdu zuen Alavesen aurka iragan martxoaren 26an Gasteizen jokaturako partida. Talde laudioarrak 16 jardunaldi zeramatzen partidarik galdu gabe. Aurreko jardunaldian, gainera, 2-1 garaipena eskuratu zuen ligako lehen postuan dagoen San Viator taldearen aurka.

Talde zuri-gorriak lehenengo minutuan jazo zuen lehenengo gola martxoaren 26ko norgehiagokan. Lehen kolpe hori

gorabehera, partida berdintzeko hainbat aukera izan zuen CD Laudiok lehenengo zatian. Aukerak izan arren ez zen golik iritsi laudioarren alde. Alavesek, bere aldetik, bi gol sartu zituen bigarren zatiko lehenengo 20 minuteutan, markagailuan are abantaila gehiago lortuz.

Javi Urrutiaren taldeak, ordea, ez dio amesteari utzi nahi, eta maila igoera lortzeko "konplexurik gabe" lehiatzen jarraitu nahi dute. "Orain, kolpe honetatik osatu eta azken jardunaldietan erakutsitako bidera itzuli behar gara. Liga asko geratzen da eta dena da posible".

TXIRRINDULARITZA

## Iker Colmenerorentzat izan da XXXIII. Aiarako Bira, eta Luyando Ganzedo izan da aurtengo talderik onena



Maroñon eman zioten Amaiera Aiarako Biraren XXXIII. edizioari. Aiaraldea.eus

Testua  
**Aimar Gutierrez Bidarte**

Sailkapen orokorrean zein indibidualean lehen postua eskuratu du Iker Colmenerok Aiarako Biran. Aurtengo edizioa 33. izan da, eta etxekoak izan dira nagusi. Sei etapa izan ditu txapelketak guztira, eta Luyando Ganzedo taldea izan da onena, Gran Canaria Bike Team taldeari 2 minutu eta 9 segundoko koska aterata.

Azken asteburuan erabaki da sailkapen orokorra, Artziniegan eta Maroñon bukatutako etapetan. Larunbatean izan zen Artzi-

**Luyando Ganzedo taldea izan da onena, Gran Canaria Bike Team taldeari 2 minutu eta 9 segundoko koska aterata**

niegako proba, eta bizi ibili ziren txirrindulariak Artziniegan zein Aiaran barrena. Iker Colmenero gailendu zen zapatuan ere, Matias Peñate eta Hugo Rodrigerezkin esprintean helmugaratuta.

Igandean, berriz, Amurrioko San Roke auzotik atera zen lasterketa, eta Maroño izan zuten helmuga. Tartean, baina, Arespalditza zein Baranbiotik igaro ziren, besteak beste. Azken etapako bizkorrena Iker Colmenero izan zen, 3 segundoko aldea atera baitzuen Pablo Polo eta Enrique Maranchon bigarren eta hirugarren sailkatuei.

PADELA

## Giro ona nagusi I. Laia-Vidrala emakumeen padel torneoan

Testua  
**Aimar Gutierrez Bidarte**

Martxoaren 18an, egun osoz jokatu zen I. Laia Vidrala padel torneo. 9:00etan ekin zioten norgehiagoka sortari; eta kanporaketan arabera erabaki zuten nortzuk parte hartuko zuten bi ligatan.

Hala, lehen partida irabazi zuten artean jokatu zen torneo

nagusia, eta gainontzekoek "kantsolazio" kuadroan jarraitu zuten lehiatzen. Izar Mendiguren -Iraia Escandon bikoteak irabazi zuen azkenean final nagusia, Nerea Garmila eta Izaskun Ugarte menderatuta. Kantsolazio torneo garaileak, berriz, Irune Aldecoa eta Eider Sanchez izan ziren.

Txapelketa ez ezik, erakustaldi partida ere egin zuten 11:30ean,

Euskal Herrian puntan dabilzan jokalariek. Iraia Escandon -Izar Mendiguren bikotea izan zen garaile. Bigarren postuan Nerea Garmila -Izaskun Ugarte bikotea geratu zen; eta, hirugarren postuan, adliz, Izaskun Azula -Rosa Fernandez bikotea.

Horrez gain, emakumezkoen beste partida batzuk ere egin ziren lehiatik kanpo, partida laburren joko-formula erabilia.



# herriko plaza



## Nerea

Zorionak Nerea! Ez izan hain creapy eta ea urte berria fresh hasten duzun! Itsatsia zaude!

XXI. mendea



BIDALI  
ZURE  
ZORION  
AGURRA!

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia [agurrak@aiaraldea.eus](mailto:agurrak@aiaraldea.eus) helbidera eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko dugu. Apirilaren 19an argitaratuko da hamabostekariaren hurrengo zenbakia.

## Denborapasak

ERRAZA

		6	3					7
		8	6	5			9	
2	1		7	4	9			8
				3				
			4	8	6		7	
8	3	5		9		2		
5		7			3			6
			8			4		
			2					5

OSO ZAILA

1	4		3			7		
8								
	6					1		
	1		7				2	
3		4	8		5		9	
							1	
4		6					8	
		5				3	1	
			4			2		

DENBORAPASEN SOLUZIOAK Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz gezidunen soluzioak webgunean ikusgai: <http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak>

## Zozketa



**Beatriz Egizabalen  
'Magma mia!' umore  
bakarrizketaz Faktorian  
gozatzeko sarrera  
bikoitz baten zozketa**

'Magma mia!' bakarrizketaz gozatzeko sarrera bikoitz baten zozketa

Parte hartzeko sartu [www.aiaraldea.eus](http://www.aiaraldea.eus) atarian **Zozketaren data:** Martxoak 31, 12:00etan.



## IRAKURKETA GUNEA

### BARRUKO HOTSAK ETA BESTE SOINU TXIKI BATZUK

**Idazlea:** Leire Bilbao Barruetabeña

**Ilustratzailea:** Maite Mutuberría Larrayoz

**Argitaletxea:** Pamiela-Kalandraka

Inguruan hamaika hots ditugu. Esnatzen garetik lokartu harte soinuek inguratzen gaituzte. Poema liburu honek hauek jasotzen ditu.



### TRUMOIAREN ALABA

**Idazleak:** Jon Arretxe

**Argitaletxea:** Erein

**Adina:** 12 urtetatik gora

Abentura liburu honetan, nerabeak bi neba-arreben paperean jarriko dira. Munduan bakarrik geratu ondoren, biziko dituzten abenturak kontatzen dizkigu Jon Arretxek liburu honetan. Gai sakonak lantzen ditu idazleak abenturaz eta magiaz beteriko liburuan.



## JOLAS GUNEA

### UBONGO JOLASA

#### MATERIALA

- 12 piezako 4 multzo
- Dado berezia
- 36 txantilo
- Harea-erlojua
- 58 arribitxi

#### ZER DA?

Taldean edo bakarrik jolasteko aukera ematen duen mahai jolasa da Ubongo. Puzzle jolas bat da erronka ezberdinak jarriko dizkio jokalaritari.



Erronka bakoitzean emandako piezekin forma konkretu bat bete beharko da. Bi zailtasun ezberdinekin jolastu daiteke. Modu errezean hiru pieza kokatu beharko dira eta zailenean lau.

Jolas dibertigarria da, logika espaziala eta matematikoa aktibatzen lagutzen duena. Bakarrik jolasteko aukera ere ematen du, hala ere dibertigarriagoa da jendearekin jolastea.

Erronkak betetzeko prest?



**KOKORIKO**  
HEZKUNTZA FAKTORIA

### Denbora

Egunak 24 ordu ditu, asteak 7 egun eta urteak 365 egun, bai helduentzako eta baita haurrentzako ere. Haurren denborak ordea, helduenak baino gutxiago balio duela ematen du. Helduen ordutegi eta denboren arabera haurren denbora bete egiten dugu ekintzaz.

Eskolari exijitzen diogu haurrak ahalik eta denbora gehien bertan izan ditzaten. Eta eskolak itxita daudenean, guraso elkarteei edo udalei eskatzen diegu haurren denbora bete dezaten.

Horrela, haurrak eskolara sartzen ditugu, goizeko gelarekin edo goiztiarrekin ahalik eta goizenez. Jantokian bazkaldu eta arratsaldeko klasearen ostean, eskolaz kanpokoetara eramaten ditugu. Noski, ahalik eta produktiboen diren eskolaz kanpokoetara, ez dezaten denbora galdu.

Haurren opor egunetan, udalekuan sartzen ditugu... Madrilen adibidez, eskolak irekitzea erabaki dute.

Haurrek ez daukate aspertzeko tarterik, eta hau kontziliazioaren izenean egiten da. Haur askok zortzi ordu baino gehiagoko jarduna egiten dute egunean. Kontziliazioa haurren denboraren kaltetan da eta ez enpresetan langileek sartzen dituzten ordun kaltetan.

Kontziliazioa lanpostuetan borrokatu beharreko zerbait izan beharko litzateke, ez haurra non utz dezakegun logikan pentsatutako zerbait, Familian denbora gehiago eman ahal izatea borrokatu beharko genuke haurren zain-tzan.

Zaintza erdigunean jartzea aldarrikatzen denean, zaintza eredu hau ere eztabaidatu beharko da. Haurrek beren gertuko familiekin tarte gehiago pasatzeko aukera izan beharko lukete, beraien denboraren balioa azpimarratu eta guztiz beteta egon ez dadin.

## PIPER BETAIAK




#### OSAGAIK:

- Betetzeko piper gorriak
- Olio
- York urdaiazpikoa
- Gatza
- Txaka
- Ozpina
- Anana
- Arraultza


#### AZALPENA:

1. Lehendabizi barruko oreia egingo dugu. Horretarako ahalik eta txikien moztuko ditugu, txaka, york urdaiazpikoa eta anana ere.
2. Behin dena txiki moztu dugunean, mahonesa egingo dugu. Horretarako bote batean, arraultza, olio, gatz eta ozpina bota. Irabiagailuari eragin gora eta behera mugitu gabe. Behin loditzen dela, hasi gora eta behera mugitzen.
3. Mahonesa txikitutako elikagaiekin batu eta piperrak betetzen hasi. Goilara txiki baten laguntzarekin erraz beteko dituzte.
4. Plater batean polit jarri eta jatera!





**ALdea dago!** Aurki itzazu bi irudion artean dauden aldeak. 14 dira guztira.



Gure lagunak (honezkerok badakizu zein animalia den) arrain bat ikusi du uretan eta hura harrapatzea doa. Inguruan belarra eta sastraka dago eta euria ari du. Marraztu eta margotu eszena.

**Margotu**



**Zeeer??!!**


Zer diote gure laguntxoek? Hasi bakoitzaren gezitxotik eta lotu hizkiak banan-banan, hariari jarraituz. Puntu urdinak hitzei arteko espazioak dira.

Handwritten name area for a boy, with a pencil icon and a cartoon boy's face.

Handwritten name area for a girl, with a pencil icon and a cartoon girl's face.

Idatzi lauki banatan pertsonaia bakoitzaren esaldia

**SOLUZIOAK**





# Kontra

## Aiaraldetik mundura




### Mohammed El Haiba

JAIOTERRIA  
BIR ZARAN (SAHARA)

BIZILEKUA  
BELGIKA

BIDAIAREN XEDEA  
FAMILIAREKIN BIZITZERA JOAN ZEN  
LAUDIOTIK BELGIKARA



### BELGIKA



#### DESKRIBAPENA

Europa mendebaldeko estatu burujabea da. Monarkia konstituzional federala da. Bi eskualde nagusik osatzen dute: Valonia frantsesduna hegoaldean, eta Flandria nederlandaraduna iparraldean, tartean Bruselako eskualdea. 1830. urtean lortu zuen burujabetasuna, Herbehereetatik berezita.

#### AZALERA

30.528 kilometro koadro.

#### BIZTANLEAK

11,55 milioi biztanle.

#### HIZKUNTZAK

Nederlandera, frantsesa, alemana, luxenburgera

#### Argitaratzailea:

Aiaraldea Kooperatiba Elkarte  
Tirada: 10.000 ale.  
Maiztasuna: Hamabostekaria  
Lege gordailua: BI-1230-2013  
Posta elektronikoa: egunkaria@aiaraldea.eus agenda@aiaraldea.eus erredakzioa@aiaraldea.eus  
Publizitatea: publizitatea@aiaraldea.eus  
Tifnoa: 688 62 53 94  
Helbidea: Errotari kalea 4-8 pabilioia, Laudio. Araba. 01400  
Telefonoak: 94 656 85 54/688 62 59 00  
Web-gunea: www.aiaraldea.eus  
ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

#### ESKER BEREZIAK BANATZAILE BOLUNTARIOEI:

Sofia Cisneros, Aitziber Alava, Josu Zabala, Iraia Pereiro, Genma Corbella, Endika Arribas, Christian Alemany, Gartzten Garaio, Aitor Fernandez, Jon Catalan, Iñaki Larrakoetxea, Jabi Asurmendi, Lander Ria, Xabi Ugalde, Alberto Gutierrez, Eunate Ekhiñe

## “Laudion igarotako denbora laburra izan arren, gehien hunkitu ninduen lekua da”

Laudiotik Belgikara bizitzera joan zinen duela 10 urte baino gehiago. Nola aldatu da zure bizitza denbora honetan? Zertan ari zara orain?

Egia esan, asko. Nire bizitza heldua hemen izan da. Kanpamenduekin zein Laudioko haurtzarorekin alderatuta, alde handia dago. Bai hemengo pentsamoldeagatik eta baita jendea nolakoa den ere bai.

Zein zentzutan uste duzu bereizten direla gure bizimoduak?

Oso desberdinak dira. Esaterako, Euskal Herrikoa beroagoa eta familiarragoa da, nire ustez. Laudio bezalako herri batean mundu guztia ezagutzen duzu eta bertakoa sentitzen zara. Hemen, jendea, belgikarra edo flandestarra izan arren, ez du komunitate-zentzu handirik, ezta familia-zentzurik ere.

Belgikara joan zinenean ikas-

lea zinen oraindik. Oso desberdina iruditu zitzaizun leku batetik besterako aldaketa?

Bai, hizkuntzaz gain, eskola-sistema ere ezberdina da. Adibidez, DBHko 1. mailatik aukeratu behar duzu zer egin nahi duzun etorkizunean, zer karrera edo lanbide-heziketa gradu egin nahi duzun. Hasieratik aukeratu behar baduzu, oso zaila da. Nik esango nuke irakasleek aukeratzeko dutela zuzenkerak, noten eta hizkuntza-mailaren arabera. Pena da hori, egia esan.

Zamaketaria zara portuan. Nolakoa dira lan baldintzak?

Ezberdinak dira, hemen gehiago lan egiten delako sindikatuarekin. Dena mugitzen da sindikatuarekin, dena. Haiek dira portuan onartzen zaituztenak eta tramite guztiak egiten dizkizutenak. Lan giroari dagokionez, hemengo jendea Euskal Herrikoa bezalakoa da, oso langileak, baina hemen lan asko egiten

dute. Batzuek zazpitik sei egun. Ez dute gozaten. Lan egin ondoren, ez dute inoiz lankideekin zerbait hartuko, eta zuzenean etxera joango diren eta hor ere lan egin. Denek dute etxebizitza erosteko pentsamoldea. Lanaren kultura da.

Iaz Laudiora itzuli zinenean, oso aldatuta ikusi zenuen?

Egia esan, ez nuen aldaketa handirik ikusi, eta zentzu batean pena da. Egia da zure herria denean, hainbesteko aldaketarik ikustea ez zaizula axola. Erosoa da berdin berdin egotea, baina ez dakit positiboa edo negatiboa den.

Zure haurtzarora errefuxiatuen kanpamenduekin ere lotuta dago, inoiz itzuli zara?

Bai, askotan itzuli naiz; familia, amona eta izebak ditudalako. Beti itzultzen naiz, ahal dudan guztietan. Pena ematen dit, ez bainaiz bertara itzultzeaz pzotu behar,

azken finean errefuxiatuen kanpamentu bat delako, baina hor barruan dagoen jendea nire familia da. Kontrako sentimenduak dira. Tristatzen nau, kanpalekuak direlako eta herrialderik ez dudalako; eta, aldi berean, nire familia hor dagoenez, badu bere alde berroa ere. Hala ere, Laudion igarotako ibilbidea laburra izan arren, konturatu naiz gehien hunkitu ninduen lekua dela, hor bizi bainuen haurtzarora.

Beharbada aspaldi ikusten ez duzun jendeak elkarrizketa irakurriko du. Zeozer gehitu nahiko zenuke?

Bai, azken gauza bat esan nahiko nuke. Euskaraz hitz egiten duen jendea kzaindu egin behar duela hizkuntza. Oso garrantzitsua da, ez euskaldunentzat bakarrik, baizik eta orokorrean jende askorentzat. Euskaraz entzutea faltan bota izan dut hemen Belgikan.

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:



araba álava  
foru aldundia diputación foral



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA